



Frantziskotarren Bilboko komentuen aztarnak ageri ziren San frantzisko auzoan aparkaleku bat egiteko lanak hasi zituztenean. MARISOL RAMÍREZ / ARCAZKI PRESS

Lurzoruak gordetako ondarea

Bilbo Zaharreko indusketa arkeologikoan aurkitutako komentua ezagut daiteke bisita gidatuetan

MIKEL CARRAMIÑANA
Bilbo

XX. mendeko industriaren motore eta XXI.eko turismoaren izar bilakatu bada ere, Bilbo ez da Euskal Herriko hiribururik zaharrena. Hala eta guztiz ere, zazpi mendeko historia luzea dauka Bizkaiko hiriburuak Haroko Diego Lopezek sortu zuenetik. Horrexegatik, bitxia da aurreko mendeetako aztarna arkeologikoak oso gutxitan edo inoiz ere ez aurkitzea, are gehiago, eraikin berriak sortzeko etengabeko lanak egiten dituztelarik hirian zehar. Hutsune horren salbuespen bilakatu dira duela urtebete inguru agertu ziren aztarnak, Bilbao Ria 2000 erakundeak Bilbo Zaharra auzoko Mariaren Bihotza plazaren azpian eraiki nahi zuen aparkalekuetako obrak hasi behar zituztenean aurkitu zituztenak.

Adituek bazekiten lurzoru horretan askotariko eraikinak altxatu zirela iraganean, udalaren eta elizaren artxiboetan horien berri baitago aspaldi. Frantzisko Asiskoaren jarraitzaileak izan ziren inguru horretan ezarritako lehenengo biztanleak XV. mendetik aurrera, han eraiki baitzuten



Komentuko zutabeen apaindurak ikus daitezke aztarnetan. MARISOL RAMÍREZ / ARP

frantziskotarren komentua 1505. urtean, zazpi urteko lanak bukatu ondoren.

Eliza katolikoaren anaidi aitzindaria Bizkaian ezarritako lehenengo izan zen, eta Sixto IV.a aita santuak 1475ean eman zien Bilboko komentua sortzeko bulda. San Frantziskoren eliza eta komentua

nandeenak ziren. Komentuaren ondoan, hilerria eta eliza egin zituzten; azken horri dorre bat ere erantsi zioten.

HONDAKINAK PILATZEN. Komentuak XIX. mendera arte iraun zuen; izan ere, gerra garaian Napoleon Bonaparteren soldaduek hartu zuten eraikina eta fraideak bota zituzten. Geroago, karlistadetan, militarren egoitza bilakatu ziren berritako komentuko gelak. Azkenean, 1856an elizgizonen eraikina bota zuten, han Alfonso printzearen kuartela egiteko, herriarrek San Frantziskoko kuartela deitutakoa. Obrak komentuaren gainean egin zituzten eta, XX. mendean, 1931an kuartela bota zutenean, hondakinak Mariaren Bihotza plaza sortzeko erabili zituzten. Eraikin desberdinetako hondakinak pilatu ziren, beraz, komentuaren aztarnen gainean.

Harri puskarik apenas mugitu den aspaldi handian San Frantzisko kaleko bihotzean, baina urteotan sortu diren Bilbo Zaharra eraberritzeko egitasmoetan, han aparkalekuak egiteko asmoa agertu izan du Udalak. Lurra mugitzen hasi bezain pronto agertu ziren kuarteleko aztarnak eta, orduan, lurzoruaren zundaketa egitea erabaki zuen Bilbao Ria 2000 erakundeak. EHUKo arkeologo talde batek eta Quark enpresako adituek eginiko azterketan, aztarna garrrantzitsuak ageri zirela ondorioz-

Martxoan erabakiko dute aparkalekuak egin edo proiektua baztertu

Indusketa lanetan aritu diren arkeologoek komentu aztarnen garrantzia nabarmendu duten arren, Bilbao Ria 2000 erakundeak ez du oraindik erabaki Mariaren Bihotza plazan egin asmo zuten aparkalekuak sortzeko proiektuak behin betiko baztertu duten edo, arkeologoaren lana bukatuta, obrarekin jarraitzeko asmoa duten. Indusketa arkeologikoak urte honen amaierarako bukatzea aurreikusitako dute eta, atzo iragarri zuten, 2008ko lehenengo hilabeteetan, «martxoan seguruenik» aurkeztuko dituzte ikerlanen ondorio nagusiak.

Orduan erabakiko dute Bilbao Ria 2000ko arduradunek hasierako proiektuarekin zer egin. Azaldu dutenez, hiru aukera egon daitezke: Komentuaren ondarea berreskuratu eta gordetzea, zati jakin bat gorde aparkalekuak eginda eta, azkena, guztia desegin aparkalekuak egiteko.

tatu zuten eta, horregatik, indusketa egitea proposatu zuten.

AZTARNAUGARI. Quark enpresako arkeologoak aritu izan dira urte erdi inguruko indusketa lanetan, 2.000 metro koadroko lurzoruaren eta sei metroko sakoneran, Mikel Neira eta Leandro Sanchezen aginduetara. Gaur egun auzotar guztiek ikus ditzakete ikerlanak emandako emaitzak; izan ere, komentua eta kuartela izandakoen harresiak agerian utzi ditu indusketak. Zaila da, alabaina, horma bakoitzak zein eraikini dagokion desberdintzea, «kontuan izan behar dugu fraideak 400 urtez bizi izan zirela hemen, ikusten ditugun harresiak garai desberdinetakoak izan daitezke, ez dute zertan bat egin», azaldu zuen Neirak. Bestelako aztarnak ere aurkitu dituzte, «txanponak, dominak, arrosarioak eta botika botila ugari ageri dira». Zeramikak puskarik ere, «ia kontaezina» direla esan zuen.

Sanchezek, bestalde, zalantzan jarri zuen Bilbon halako beste aztarnarik ageri ez ote den, «agian egon dira, baina gauzak ez dituzte behar bezala egin». Ondarea babestea, «gastua baino, inbertsio gisa ikusi beharko lukete erakundeak, eta errentagarria izan daiteke, ondo kudeatuz gero». Orain arte aurkitutakoa, «aztertu eta sailkatu ondoren», Bilboko Arkeologia museoan gordeko dutela iragarri zuen.

Indusketa abenduan bukatutako dutela uste dute, eta, bien bitartean, orain arte azaleratutakoa erakutsi nahi die herritarrei Bilbao Ria 2000 sozietateak. Datorren astean hasiko dituzte bisita gidatuak. Ordubeteko saioak izango dira, ikus-entzunezko dokumentu batekin osatuko dituztenak. Aste-antzerketan egingo dituzte, oraindik egunak zehaztu ez badituzte ere.